

Bolboraren imentzioa

Euskaldunon Egunkaria, 1998-03-29: 3.

Aspaldi asmatua izan den bolbora aurkitu berri du Espainiako eskuin zaharrak: eusko alderdiek hain beharrezko duten bake formula euskal nazionalismoa areagotuz aurkitu dutela diote, harriturik alajaina!

Euskal Herriari zor zaion eskubide naturala besterik ez dute eskatzen eta.

Historiaren zentzuak beti izan du higigune pendular bera: herri handinahi eta borrokariak sorrarazi dituzten inperioen menpeak, batez ere iraganeko garai jakin batzuetaz baliatuz, eta herri zanpatuek erantzun ahal izan duten beste batzunekin osatzen dutena. Amerikako prozesua da exenplu handienetako bat. Gero gauza bera gertatu da Afrikan, eta Europako gerrateetako olatuetan daukagu beste ereduazko konplexutasuna erakusten duena. Gaur arte. Hemen gaude oraindik gure garai hau pairatzen. Ez da zaila pairatzailea eta pairua ezartzen ari dena zeintzuk diren ondorioztatzea. Ezaugarriak agerian daude kulturen hondamendietan eta armaden aginteetan, Francoren gudua eta berrogei urtetako inperioa, kasu! Enperadorea hil zen makurkeriaz eta krimenez kargatuta, mundua zuen kontra, eta ondorengo bere moduak aldaketa batzuk izan badituzte ere, bistan da oraindik nor eta nola dauden herrienganako aginteak eta justizia xumea bera ere aplikatuak. Ez dut esaten abertzale euskaldunok jokabideetan hutsik gabe garenik, baina arrazoin eta eskubide nagusiak zein aldetan dauden, begiratu besterik ez dago ikusteko.

Izan da bada hogeitakada honetan beta Euskal Herrian ere beste herri batzutan egin diren aldakuntzak egiteko, baina Estatu espainolen ahalegin txiki batzuren ostean betiko hatzaparra ageri da Justiziaren errainuetan, eta demokraziaren oinarrietan dagoen autodeterminazioaren eskubidea aipatzen dugun bakoitzean areagotzen hasten dena betiko nazionalismo espainola da kupirik eta lotsarik gabe mehatxuz kargatuta!

Gerrak eta Inperioak geuk muntatu bagenu bezala!